

## Galdera

Zer ezberdintasun dago *andereño* eta *irakasle* terminoen artean?

## Erantzuna

**andereño**: eskoletako maistra / **irakasle**: gairen bat irakasten duen pertsona; irakaskuntzan ari den pertsona

1/ Hona hemen Euskaltzaindiaren Hiztegiak ematen dituen definizioak eta adibideak:

**andereño**: 2 iz. Eskoletako maistra. *Irakasleak eta andereñoak. Italiako haur-eskola bateko sei andereño eta hiru apaiz epaitzen ari dira.*

**irakasle**: 1 iz. Gairen bat irakasten duen pertsona; irakaskuntzan ari den pertsona. *Lege irakasleak. Apaizgaitegiko Biblia-irakaslea. Nolako irakasle, halako ikasle. Lafon irakasleak prestatua. Ikastoletako andereño eta irakasleak. Unibertsitateko irakaslea. Freud-en irakasle izan zen. Bergaran irakasle zela idatzi zuen liburu hori. Azpeitian egon zen irakasle. Lanbidez irakasle naizen aldetik.*

2/ Antza denez, *andereño* hitzaren adiera horrek AEBn du jatorria; lanean hasi aurretik maistrek sinatu behar zuten kontratu-tipo batean, alegia. Michael W. Applek *Teachers and Texts: A Political Economy of Class and Gender Relations in Education* liburua argitaratu zuen 1986an, eta dokumentu hau jasotzen du, besteak beste: [Teachers contract, term 1923](#)

Hona kontratuaren hasiera:

"Akordio hau ..... maistra andereñoaren eta ..... eskolako hezkuntza-kontseiluaren artekoa da, eta haren ondorioz, ..... andereñoak onartzen du zortzi hilabetean eskolak ematea, 1923ko irailaren lehenetik aurrera".

3/ Orotariko Euskal Hiztegiak zehazten duenez, [andereño](#) hitza Goihetxe (1791-1859) urruñarrak erabilia dokumentaturik dago lehenbizikoz; baina ez zen hedatu joan den mendeko bigarren hamarraldira arte, bereziki Hegoaldeko idazleen artean; orduan, eskolako maistrari buruzko tratamendu gisa erabiltzen zen, eta areago euskal eskolako maistra adierazteko.

4/ Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoak jasotzen duen bezala, ANDEREXO epigrafea ageri da Akitaniako inskripzioetan. Horixe dugu [andere](#) hitzaren lekukotasunik zaharrena.

## Teachers Contract, Term 1923

This agreement between Miss \_\_\_\_\_ teacher, and the Board of Education of the \_\_\_\_\_ School, whereby Miss \_\_\_\_\_ agrees to teach in the \_\_\_\_\_ School for a period of eight months, beginning September 1, 1923. The Board of Education agrees to pay Miss \_\_\_\_\_ the sum of \$75 per month.

Miss \_\_\_\_\_ agrees:

- I Not to get married. This contract becomes null and void immediately if the teacher marries.
- II Not to keep company with men.
- III To be home between the hours of 8pm and 6am unless she is in attendance at a school related function.
- IV Not to loiter downtown in ice cream parlors.
- V Not to leave town at any time without the permission of the Chairman of the Board of Trustees.
- VI Not to smoke cigarettes. This contract becomes null and void immediately if the teacher is found smoking.
- VII Not to drink beer, whiskey or wine. This contract becomes null and void immediately if the teacher is found drinking beer, whisky and/or wine.
- VIII Not to ride in a carriage/automobile with any man except her brother or father.
- IX Not to wear bright colours.
- X To wear at least two petticoats.
- XI Not to dye her hair or wear makeup of any kind.
- XII Not to wear a dress more than two inches above the heel.
- XIII To keep the schoolhouse clean; to sweep the classroom floor at least once daily; to scrub the floor once weekly with hot water and soap; to clean the blackboards at least once daily.
- XIV The fire shall be started at 7am in order to warm up the room for 8am when the children arrive; to carry out the ashes at least once daily.